

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak eskerrak eman ditu Foru Komunitateari objektu baliotsuen dohaintza egin zaiolako

Hark zuzendu du aurten ekarpenak egin dituzten 15 familia eta pertsonen eskerrak emateko ekitaldia

Astelehena, 2017.eko azaroak 27

Gaur goizean, Komunitatearen Egunaren harira, Nafarroako Lehendakariak, Uxue Barkosek, omenaldi bat egin die azken urtean Foru Komunitateko artxibo eta museo publikoetara objektu baliotsuen dohaintzak egin dituzten pertsonen.

Nafarroako Jauregiko Tronuaren Aretoan izan da ekitaldia, eta, Barkos

Lehendakariarekin batera, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilari Ana Herrera eta Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilari Mikel Aranburu izan dira.

Barkos Lehendakariak eskerrak eman dizkie, Nafarroako erakundeen eta herritarren izenean, ondare pertsonaleko edo familia-ondareko objektu baliotsuak dohaintzan emateagatik, eta nabarmendu du dohaintza egin dutenek espirtu soziala, eskuzabala eta solidarioa dutela, «gu guztion festak (alegia, Nafarroaren Egunak) duen esanahi handiarekin oso bat datorrena».

Urtean zehar, 15 dohaintza egin dira, tartean, Turrillas maisuaren musika-ondarea eta Mariano Ansó Zunzarren politikari iruindarraren dokumentu-funtsa. Ia erdiak (7) Lizarrako Karlismoaren Museorako izan dira; 5, Nafarroako Errege Artxibo Nagusirako; eta gainerakoak, Nafarroako Liburutegi eta Filtotekarako, Nafarroako Museorako eta Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etnologikorako.



Uxue Barkos Lehendakariak harrera egin die objektu baliotsuen dohaintzak egin dituztenei.

Barkos Lehendakariak esan duenez, dohaintzan eman diren artelanak, partiturak, dokumentuak, liburuak eta bestelako objektuak, «askotan, bizitza osoan egindako lanaren eta sentsibilitate artistikoaren

emaitza dira, eta, haiek dohaintzan emanda, nafar guztien eskura jarri da urte askotan eta, batzuetan, historiako une erabakigarrietan egindako ahaleginaren eta gauzatutako talentuaren emaitza». Gaineratu du, aurrerantzean, museoek

eta erakundeek babestuko dituztela; bertan, «interesatuta dauden guztiek ikusi edo kontsultatu ahal izango dituzte, eta, horri esker, hobeto ezagutu ahal izango ditugu gure historia, gure artea eta gure kultura».

Lehendakariak nabarmendu du dohaintzak egin dituztenek ez dutela irabazi-asmorik eta gizarte osoarekin partekatu nahi izan dituztela familia-balio handiko objektuak; horrela, Nafarroako kultura-ondarea handitzea lortu dute. Horren harira, gogorarazi du museo, artxibo edo liburategietako pieza aipagarrienetako batzuk dohaintzan emandakoak direla; horrek garbi erakusten du «aspalditik egin izan direla dohaintzak, belaunaldiz belaunaldi, eta dohaintzak egiten dituztenek haien bidez erakusten dute Foru Komunitateari dioten estimua eta maitasuna».

Ondasunak dohaintzan eman dituztenek diploma bat jaso dute Lehendakariaren eskutik; haren hitzetan, diploma horrek «Nafarroaren eta bertako erakundeen eta herritarren esker ona sinbolizatzen du».



Barkos Lehendakaria eskerrak ematen